ETXAURIKO UDALA
31174-ETXAURI (Nafarroa)
www.etxauri.eus

AYUNTAMIENTO DE ETXAURI
31174-ETXAURI (Navarra)
www.etxauri.eus

Etxauriko Udalak Sarbileko proiektu agroboltaikoaren inguruko prozesu deliberatiboa jarriko du martxan

Martxoaren 30ean 'Sarbil: lurraldea, energia eta etorkizuna' izeneko prozesuaren aurkezpena eginen da Etxauriko udaletxean horren arrazoiak, metodologia eta helburua azaltzeko.

Sarbil Eguzki S.L. enpresak aurkeztatuko proiektu agroboltaikoa baimentzeko eskumena Nafarroako Gobernuarena izan arren, Udalak herritarren iritzia entzun nahi du proiektuak maila guztietan izan lezakeen eraginaren inguruko eztabaida erraztu eta ahalbidetuz. Horretarako, datozen asteetan burutuko diren herritarrei irekitako hainbat partaidetza-saio antolatu ditu.

Jendaurrean jartzeko epearen luzapena

Sarbil Eguzki S.L. enpresaren proiektua Nafarroako Aldizkari Ofizialean martxoaren 3an argitaratu ostean, jendaurreko informazioa eta kontsultak egiteko 30 eguneko epea zabaldu zen. Horren aurrean, Etxauriko Udalak, parte-hartze prozesua modu egokian antolatu eta herritarren zein udalerrien iritzi eta ekarpenekin kalitatezko deliberazio informatua bermatu ahal izateko, epe hori 15 egunez luzatzeko Nafarroako Gobernuari egin zion eskaera onartu egin da. "Gure ustez, handitzearen onarpenak partaidetza publikoa, gardentasuna eta lurraldearentzat garrantzi berezia duen proiektu baten gainean erabakiak hartzeko prozesuaren kalitatea hobetzen lagunduko du", adierazi du Idoia Aritzala Etxarren Etxauriko Alkateak.

Prozesuaren nondik-norakoak

Herritar guztiendako irekiak izango diren saioak Etxauriko udaletxean egingo dira 18:00etatik 20:00etara. Hasteko, martxoaren 30ean prozesua aurkeztu eta horren arrazoiak eta metodologia ezagutzera emango dira; bigarrenik, apirilaren 14an, proiektuaren datuak eta oinarriak ardatz izanen dituzten hitzaldiak egingo dira; hirugarrenik, apirilaren 22an, ikuspegi desberdinak aurkeztu eta eztabaidatzeko saioa burutuko da; azkenik, apirilaren 28an, proiektuari ezarri beharreko baldintzen oinarriak zein proposamenak adosteko saioa egingo da. Lau saio horiek egin ondoren, eta prozesuari amaiera emateko, horretan landutako ekarpen eta jasotako ondorio guztiak bilduko dituen txostena aurkeztuko du Udalak maiatzaren lehenengo astean.

Etxaurin, 2026eko martxoaren 26an

Idoia Aritzala Etxarren
Etxauriko Alkatea – Alcaldesa de Etxauri